

INFORMAZIO ORRIA

INNOBIDEAK-LEHIABIDE 2016 PROGRAMA

ENPRESEN LEHIAKORTASUNA INGURUNE GLOBALETAN AREAGOTZEKO

HELBURUA: zerbitzu edota merkatuko dibertsifikazio estrategiak definitzea eta planifikatzea ahalbidetzen duten, eta, erakunde onuradunen lehiakortasun posizionamendua nabarmen hobetzen duten banakako nahiz lankidetzako proiektuak bultzatzea.

ONURADUNAK:

- Jarduera ekonomikoko zentro bat edukitzea Euskal Autonomia Erkidegoan
- Jarduera hauetako bat egitea: industria, erauzketa edota eraldaketa, ekoizpena, produkzio prozesuari lotutako zerbitzuak (aurrekoekin lotura dutenak) eta informazio- eta komunikazio-gizartearen arloekin lotutakoak
- Programara proiektu indibidualak aurkeztuz gero, batez beste gutxienez 10 langile izatea plantillan diru-laguntza eskaera egin aurreko 12 hilabeteko epean
- Programara lankidetzako proiektuak aurkeztuz gero, batez beste gutxienez 5 langile izatea plantillan diru-laguntza eskaera egin aurreko 12 hilabeteko epean

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK:

Diruz lagundu ahal izango dira produktu, zerbitzu edota merkatuko dibertsifikazio-estragiak definitzeko eta planifikatzeko balio duten, eta, erakunde onuradunen lehiakortasun posizionamendua nabarmen hobetzen duten banakako nahiz lankidetzako proiektuak. Besteak beste, diruz lagundu ahal izango dira ondoko hauek ahalbidetuko dituzten estrategiak definitzeko eta garatzeko proiektuak:

- Presentzia handiagoa lortu merkatuetan, negozio zifra handituz
- Merkatu berriak garatu merkatu geografiko gehigarrietara zabalduz, merkatuko beste sektore batzuk erakarri, edota banaketa eta posizionamendu politika berriak diseinatuz
- Aukerak identifikatu, ebaluatu eta hautatu, eta produktu eta zerbitzu berrien garapena kontzeptualki diseinatu edo lehendik daudenak hobetu, egungo merkatuei eta merkatu berriei begira
- Barnekintzaitzari laguntzeko sistemak definitu eta garatu, negozio unitate berriak edo enpresa berriak (startup-ak) sortzeko

Ez dira diruz lagunduko I+G arloko ekintzak, softwarea erosi eta ezartzea, kudeaketa esparru desberdinak hobetzeko proiektuak, plan estrategikoak, marketin eta komunikazio planak, nazioartekotze planak, atzerriko ezarpenak edo esportatzeko partzuergoak sortzea.

Enpresa bakoitzak proiektu bakar bat aurkeztu ahal du Programa honen deialdi bakoitzera, banaka edo beste batzuekin lankidetzan.

GASTU HAUTAGARRIAK:

- Laguntza eskatu duen enpresako plantillako kide diren eta proiektua zuzenean gauzatzen jardungo duten langileen gastuak. Kontzeptu hori dela eta gastu hautagarria ez da izango hurrengo atalean zehaztutako gastuak baino % 30 handiagoa
- Aurkeztutako proiektuaren esparruan adituak diren kanpoko enpresak kontratatzekeo gastuak
- Lankidetzako proiektuen kasuan, sektore, enpresa edo lurralde mailako agenteen gastuak, bakarrik proiektuaren dinamizazio, koordinazio eta izapidetzeari dagozkionak

LAGUNTZEN MODALITATEAK ETA ZENBATEKOAK:

Proiektu indibidualak: proiektuaren gastu hautagarrien %50eraino, eta gehienez ere 45.000 euroko diru-laguntza enpresa bakoitzeko.

Lankidetzako proiektuak: proiektuaren gastu hautagarrien %60; gehienez ere 35.000,00€ko laguntza enpresa bakoitzeko eta 100.000,00€koa lankidetzako proiektuan partaide diren enpresa guztientzako. Enpresa eskatzaileek ezingo dute bakarka beren gain hartu proiektutik sortutako kanpo gastuen %70 baino gehiago. Nolanahi ere, salbuespen izango dira sektore, enpresa edo lurralde mailako agenteen kontratazio-gastuak, proiektuaren dinamizazio, koordinazio eta izapidetzeari soilik dagozkionak. Gastu horien % 100 har dezake enpresa bakar batek.

Dinamizazio, koordinazio eta izapidetzeari ariko den sektore, enpresa edo lurralde mailako agente baten laguntza duten lankidetzako proiektuetan, kontzeptu hori dela eta finantzatu ahal izango den zenbatekoa 10.000 eurokoa izango da proiektu osoan.

Programa hau aplikatuz emango diren laguntzak garrantzi txikikoak edo de minimis laguntzak izango dira.

DIRULAGUNTZA ESKATZEKO EPEA:

Laguntza eskaerak aurkezteko epea **2016ko irailak 28, eguerdiko 15:00etan**.

Aurreikusitako laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten erakundeek laguntza eskaera bete beharko dute SPRIren webgunean, www.spri.eus/lehiabide

Informazio gehiago: <https://app4.spri.net/innobideaklehiabide/default.aspx>

Las ayudas a los gastos internos no podrán exceder los siguientes límites:

- Obras: hasta el 20% sin redacción de proyecto, o hasta el 50% si incluye la redacción del proyecto
- Suministros: hasta el 20% del gasto total aprobados
- Servicios: hasta el 50% del gasto total aprobados

PLAZO DE PRESENTACIÓN:

El plazo de presentación de solicitudes termina **el 30 de octubre de 2015, a las 12:00 horas** o con el agotamiento de los fondos disponibles.